

## NARRATIBA

## Dena da politika

## VIKINGOEN SORTERRIA

Xabier Mendiguren Elizegi  
Elkar, 2010  
293 orrialde. 20 euro

Leire ZUBELDIA

Liburu mardula ireki eta "Vikingoen Sorterrira. Istorioak" irakurri dut sarrerako orrietako batean. Istorioak edo ipuinak baino, esango nuke zazpi nobelatxo idatzi dituela Xabier Mendiguren Elizegik. Beti pentsatu izan dut pertsona bakoitzak nobela bat gordetzen duela. Bere bizitzaren nobela. Bada, liburu honetan pertsonaia ezberdinen nobela kontatzen zaigun irudipena dut. Pertsonaien istorioak dira eta ez istorioetako pertsonaia. Protagonistak dira abiapuntu, eta horien bizitza hartzen du narratzaileak mintzagai. Ez da une batera, gertakari batera mugatzen; bizitza osoak kontatzen ditu egileak, edo behintzat epealdi luzeak.

Erbestean larriki gaixorik dagoen aita ezezagunaren bila doan emakume gaztea; ebakuntza arriskutsu baten aurretik alabari bere bizitzako amodio sekretua kontatzen dion emakume heldua; aitaren lantegia ixten dutela-eta ikasketak albo batera utzi eta mobilizazioak antolatzeko herrira itzultzen den ikasle abertzalea; arrebarekin harreman sexualak dituen mutil gaztea; autoarekin harrapatuta haur bat hil eta errudun sentimendua gaintetik kendu ezin duen preso ohia... Adin eta kolore ezberdine-



tako pertsonaia agertzen zaizkigu liburuan. Baina badute zerbait komunean: pertsonaia arruntak dira, sinpleak, eta bizitzako une edo gertakari batek muturreko egoera batera eramanditu. Diren bezala erakusten ditu Mendigurenek, beraien kontraesanekin. Pertsonaia guztien kasuan sumatzen du irakurleak pentsatzen eta egiten dutenaren arteko inkoherentzia. Gainera, kontraesan horiek ia beti gai politikoei izango dute zerikusia.

Politikak eta langile mugimenduak osatzen dute liburu honetako paisaia. Gehiago zehazte aldera, Euskal Herria

eta bere gatazka politikoa da testuingurua. Lantegien itxierak, ezker abertzaleko militanteen asanbladak, errefuxiatuen ezkutuko bizitza, edota presondegietak bisita gelak maiz agertzen dira istorioetan. «Dena da politika» ondorio unibertsala baieztatzen dute zazpi nobelatxoek. Ildo horretatik, zirrargarria gertatzen da Mendigurenen istorioetako batean ageri den pasarte: urritasun psikikoa duten bi pertsona borrokan hasten dira ulertzeraz iristen ez diren gertakari politiko batengatik.

Lan osoari izena ematen dion "Vikingoen sorterrira" istorioarekin zabaltzen da liburuak. Istorio honek, ordea, ez du gainontzekoek baino pisu handiagoa. Are gehiago: zazpi istorioetatik ahulena iruditu zait niri. Badirudi egileak liburuen azken erdirako utzi nahi izan dituela istoriorik kitzikagarrienak: arestian aipatutako bi pertsona atzeratu arteko borrokaren pasarte kontatzen duen "Normalak bagina bezala", "Galeperrak" eta "Ezbeharrean zorion" dira irakurle honi gehien eragin dioten narrazioak.

Istorio batetik bestera narratzailearen ikuspuntua aldatu egiten da, baita kontaketa antolatzeko era ere. Hala eta guztiz ere, liburuak nahiko monotonoa egiten da. Istorio guztiek ondorio bertsuetara garamatzatelako izango da beharbada. Honako hau aurrez Mendigurenek argitaratuak dituen lanen jarraipen bat dela esango nuke. Oraingo honetan, ordea, irakurlearengan eragitea lortu du.



Victor MORENO

## Redundancia

Coloquialmente, pleonasmos como «subir arriba» y «bajar abajo» son habituales. En periodismo, se abusa de «erario público» y «circunstancias que rodearon el crimen». Y en la información meteorológica, algunos presentadores cuelean la fórmula «vayamos ahora con la previsión prevista para mañana».

Que estas redundancias expresivas se den en la vida cotidiana o en el periodismo de batalla, es bastante comprensible. Ya no lo son tanto cuando proceden del gremio de los escritores o de los críticos literarios. Especialmente, si dichas expresiones pertenecen a una escritura consciente, como se supone que lo es la de un crítico o un novelista.

Lo cierto es que existen críticos que en estas dejaciones se comportan igual y, por tanto, peor que la vulgaridad ambulante. Que un crítico como Pozuelo Yvancos, al reseñar la novela "Virginia o el interior del mundo", diga que su autor «Álvaro Pombo escribe unas novelas cada vez más suyas», es para pedir a la autoridad del ramo que le retire cinco puntos del carné al citado crítico.

¿Suyas? ¿Qué quiere decir este crítico redundante, que hasta la fecha Álvaro Pombo se ha dedicado a emborrionar novelas cada vez más, pongo por caso, de Armando Palacio Valdés o de Gustavo Martín Garzo?

Si es así, alabada sea la aclaración conceptual del crítico, quien nos ha deparado una información que desconocíamos: que las novelas de Pombo hasta la fecha publicadas las había escrito él, y no su palafrenero negro. Una distinción, en verdad, necesaria.

Aunque, también, nos coloca en un aprieto interpretativo muy serio a sus lectores más o menos incondicionales: ¿Hasta qué punto las novelas anteriores que escribió Pombo eran "completamente" suyas? Porque, si no lo eran, ¿a quién hemos estado leyendo cuando leíamos a Pombo, si éste no era del todo suyo y no escribía novelas completamente suyas?

## KALERATU BERRIAK



## OCHO ESCRITORAS VASCAS

**OCHO UNIVERSOS. OCHO ESCRITORAS** | Ana Urkiza  
Alberdania, 2010  
376 páginas. 27 euros

Versión en castellano del libro editado hace ya cuatro años en euskera, en el cual Ana Urkiza se adentra en la vida y la obra de ocho escritoras vascas: Arantxa Urretabizkaia, Mariasun Landa, Aurelia Arkotxa, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe y Yolanda Arrieta.



## INQUIETANTE PARAÍSO VERANIEGO

**LA HORA DE LAS SOMBRAS**  
Johan Theorin  
Mondadori, 2010  
496 páginas. 19,90 euros

Premiada como la mejor novela sueca del año, "La hora de las sombras" se sitúa en la isla de Öland, lugar remoto poblado de leyendas y mitos. Allí, un niño que veranea en la isla desaparece sin dejar rastro. Veinte años después, el abuelo del chaval recibe un paquete que contiene una pista para dar con él.



## LA COTIDIANIDAD DEL DRAMA

**SECRETOS A VOCES**  
Alice Munro  
RBA, 2010  
320 páginas. 21 euros

La escritora canadiense Munro incluye en este volumen un conjunto de relatos en torno a mujeres. Vidas de mujeres que se enamoran por carta o que encuentran, sin buscarlo, un novio millonario; niñas que desaparecen sin dejar rastro, o una mujer que se recorre medio planeta para seguir a su ex marido.



## CRUDO RETRATO DE LA NUEVA POBREZA

**NADA, NADA MÁS EN EL MUNDO**  
Massimo Carlotto  
Laertes, 2010  
66 páginas. 9 euros

Crónica de la desesperación de una Italia precaria y sometida, narrada mediante el dramático monólogo interior de una ama de casa que ha perdido toda esperanza al ver que llenar la cesta de la compra resulta cada vez más difícil. Massimo Carlotto recurre a la novela negra en su esencia de narración social.